

UPV/EHUn AZPIEGITURA ZIENTIFIKOAREN ETA FUNTS BIBLIOGRAFIKOEN EROSKETA ETA BERRITZEA FINANTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2025

Akatsak zuzentzeko prozedura

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak bere oiniritzia eman ondoren eta Gobernu Kontseiluaren onespenezkin, UPV/EHUn azpiegitura zientifikoaren eta funts bibliografikoaren erosketa eta berritzea finantzatzeko laguntzen 2025eko deialdia argitaratzea erabaki zuen.

Behin eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak eskaeren azterketari ekin dio deialdiak ezarritako irizpideekin bat datozela egiaztatzeko asmoz.

Egiaztatze honen arabera,

ERABAKI DA onartzen diren eta alderdiren bat zuzendu behar duten eskaeren behin-behineko zerrenda web atarian argitaratzea.

Eskatzaileek hamar egun balioduneko epea izango dute, **2025eko apirilaren 3tik 16ra arte, biak barne**, aipatzen diren aldaketak egiteko. **Zuzenketak egiteko epea amaituta, akatsak zuzendu ez dituzten eskaerak baztertuko dira.**

Zuzenketa guztiak deialdiaren 5. oinarrian eskaerak aurkezteko ezarritako bide berberetatik aurkeztu beharko dira:

Eskabidea UPV/EHUren egoitza elektronikoa (<https://egoitza.ehu.eus>) aurkeztu beharko da, eta **"ESKATU"** eremuan **"2025 Azpiegitura"** erreferentzia eta unitatea **"Ikerketa errektoreordetza – UPV/EHUko ikerketa-deialdiak"** adierazi beharko dira. Horretarako, egoitza elektronikoa jasotako identifikazio- eta sinadura-bideetako edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren FNMT-CERES ziurtagiria. Izenperen ziurtagiri profesionala hodeian duzula "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez sartzeko, beharrezkoa da profesionalentzako txartel birtuala hodeian instalatuta izatea eta saioaren hasiera egitea.

Leioan, 2025eko apirilaren 2an

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza